

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Landa eremu auzoetako eta herriko kaleetako ekintzetarako 2025eko dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 833581.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/833581>).

Jakitera ematen da 2025eko maiatzaren 16ko 2025/2572 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartu egin dela landa eremu auzoetako eta herriko kaleetako jaietako ekintzetarako 2025eko dirulaguntzen deialdia. Beraz, jendaurrean jarri da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Lehenengoa. — Xedea

Landa eremu auzoetako eta herriko kaleetako jaiak antolatzeko ekitaldiak diruz laguntzea

Bigarrena. — Eskatzaileak

Bermeoko landa eremu auzoren edo herriko kale bateko jaiak antolatzen dituen pertsona fisikoa zein juridikoa

Hirugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa mota

- 42.000 euro.
- Dirulaguntza ebatzi ondoren %75a ordainduko da eta justifikazioa egiten denean gainerako %25a.

Laugarrena. — Emango den zenbateko handiena

- 4.500 euro (Landa eremuko auzoetako jaiak).
- 4.000 euro (Herriko kaleetako jaiak).

Bosgarrena. — Eskaria eta justifikazioa egiteko epea

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, landa eremuko auzo edo herriko kale bakoitzeko jaiak baino 45 egun lehenago. Salbuespena izango da, 2025eko ekainean antolatuko diren jaietan, epea gutxienez 15 egun lehenago izanik.

Seigarrena. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera egiteko:
- Dirulaguntza eskaera: IN-E 269/02-23 edo IN-G 269/02-23.
 - Aurrekontua: IN-E 270/02-22 edo IN-G 270/02-22.
- Justifikazioa egiteko:
- Dirulaguntza justifikatzea: IN-E 271/04-25 edo IN-G 271/04-25.
 - Diru sarrerak eta gastuak: IN-E 272/01-20 edo IN-G 272/01-20.

Zazpigarrena. — Kontzesioaren modalitatea

Norgehiagoka, baina konparaziozko balioespenik gabe.

Zortzigarrena. — Ebazteko epea

Eskaera egiteko epea amaitzen denetik, 60 egun.

**Bederatzigarrena. — Helburuak, balorazio irizpideak eta prozedura**

2025eko maiatzaren 9an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzetan agertzen dira.

Hamargarrena. — Tramitaziorako instruktoea, balorazio batzordea eta erabakia

- Kultura teknikaria.
- Dirulaguntzen balorazio batzordea.
- Tokiko Gobernu batzarra.

Hamaikagarrena. — Justifikatzeko epea

- Landa eremuko auzo edo herriko kale bakoitzak jaiak egin eta 45 egunera.
- 2025eko azaroan ospatuko diren jaietarako, gehienez 2025eko abenduaren 19rako.

Bermeon, 2025eko maiatzaren 19an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly